FELIX ZUBIA OLASCOAGA (Laudatio)

Kurrikuluma sinple eta laburra.

Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatua (1998) eta doktorea (2009), biak UPV/EHUn. Medikuntza Intentsiboan espezialista (2004), Donostia Unibertsitate Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean lan egiten du 2004tik. UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasle elkartua 2007tik.

Bere jarduera gehiena arlo klinikoan egiten du, Zainketa Intentsiboetako Unitatean. 6 doktore-tesi zuzendu eta hainbat kongresutan parte hartu ere.

Hedabidetan kolaboratzaile ezaguna: Euskadi Irratia, Argia, Elhuyar... Euskadi irratiko Osasun Etxea saioaren aurkezle, 12 urtez Arantxa Arzarekin batera. Gurutze Gorriko instruktorea.

Ya está. Punto. Bainan goazen, guzti horren atzean, ondoan edo azpian zein dagoen ikustera.

Orain sekretotxo batzuk, Felix.

Itziar, Felix eta Aizpea. Hiru anai-arreben erdikoa. Umetan jatun ona omen zen, ez "mikirkerian" ibiltzen zen horietakoa.

Eskolan ikasle ona. Apuntiak lagunei erregalatzen zuenetakoa. Txikitandik medikuntza gustatzen zitzaion eta ikasi nahi zuen. Martija irakasleak esan ohi zuen: "Hori mediku egiten bada, neure mediku nahai dut".

Bere eskolalagun batek dionez: "EBB garaian konturatu nintzen Felix ez zela garai horietan 'enpoiloia' deitzen genion horietakoa".

Berezko argitasuna erakusten zuen. Problema konplexuak askatzeko zuen gaitasuna ondo ezagutzen genuen.

Benetan gorrotatzera iritsi zintezken tipo horietakoa. Ikaslea ona, txintxoa, jatorra, umila… eskerrak ez zuela kirolerako trebetasun berezik eta ez zen gelako goapoena, bestela ezin gorrotagarriagoa zitekeen… inbidia hutsagatik.

Gaur etzaigu arraroa egiten gimnasioak nerabez beterik ikustea, baina garai haietan gutxi batzuk besterik etziren. Bera, beti bezain zorrotz, kulturismoa sakondu eta gorputzeko gihar guztiak banan-banan izendatzen zituen.

Felixek hiru ardatz baditu bere bizitan:

- MEDIKUNTZA, bistan da, bainan gaixoekin, pertsonekin egoten den hoietakoa.
- EUSKARA: Bertsogintzan berekasa sartzen hasi eta eskolan maixu iztaera heldu zen. Alor horietan hainbat publikazio hor daude testigu. **Rikardo Arregi Kazetaritza Saria jaso zuen 2020an. HERMES 69 2021 Euskera bidegurutzean Aitor Montes Jon Zarate Felix Zubia**

- FAMILIA: Susana, Jon eta Olatz. Amari katalanez, eta aitari euskaraz aritzen zaie. Biek, bi hizkuntzetan. Eta... ELKIA bere txalupa. Denbora librerik duenean eta itsasoa bare dagoenean, bere seme alabekin (Jon eta Olatz) berehala Zumaiara joan eta itsasora ateratzen dira. Arrainetara bai, baina elkar ondo ezagutzen direnez, bakoitzak bere bideari jarraitzen, omen.

  Ahhh, barkatu:

- Realeko bazkide eta forofoa.
- Beti bere laguntza luzatzeko prest dagoena. Edozertan, edonoiz. Eta ZarautzOnek hori ondo daki.

Jose Mari Larramendi